

ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA

7 ENERGIA
INGARRIA ETA
EZ KUTSAGARRIA



ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA



TOLOSA



tolosakoingurumenzentroa



ingurugela



TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



kaixo!

- Iritsi da ikasturte amaiera eta Eskolako Agenda 2030 proiektuaren bidez aurten landutakoaren berri ematera gatoz.
- Aurten, bi urtetako erronkari eman diogu hasiera eta Garapen Iraunkorrerako 7. helburua izan dugu abiapuntua.



ENERGIA
IRISGARRIA ETA
EZ KUTSAKORRA



TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Lantaldea

20. ikasturte betetzen
dugu Tolosako
ikastetxeak proiektu
honetan elkarlanean.
Haur hezkuntzatik
lanbide heziketaraino.



- Don Bosco
- Herrikide ikastetxea
- Inmakulada ikastola
- Laskorain ikastola
- Orixe institutua
- Peñascal ikastetxea
- Samaniego ikastetxea
- Tolosaldea lanbide institutua

**** Orotara 4.400 ikasle inguru baina ez gaude bakarrik,
eskolako beste langile, irakasle eta gurasoek ere parte hartzen dute.**



TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Tolosaldean



Aduna, Anoeta, Asteasu, Berastegi, Ibarra, Irura, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkilgo adin ezberdinetako 7.500 ikasle inguruk eta bere familiek ere parte hartu dute Eskolako Agenda 2030 egitasmoan.

**** Ez dugu ahaztu behar Eskolako Agenda 2030 proiektuaren helburu nagusia: gure herriko etorkizuneko erabakietan parte-hartzen ikasi eta hasi.**



TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Egindako lana

- Udazkenean, energiaren gaia ezagutzeko, motibazio jarduerak eta eskolako diagnostikoa burutu genituen.
- Udaberrian, herriko diagnostikoaren txanda iritsi zen. ENERGIA gelan eta gelatik kanpo aztertzen aritu ginen.

Jarraian burututako jarduerak eta atera ditugun emaitzak aurkeztuko dizkizuegu.





Zer da energia? ingurumenean eragina al du?

Badakigu...

- energia behar dugula argiak pizteko, gailu batzuk martxan jartzeko, kotxea ibiltzeko...
- kotxeek kea ateratzen dutela airea zikinduz eta oinez eta bizikletaz ibiliz gero ez...
- eta argia aurreztu behar dela baina zergatia ez dugu ulertzen!

Guk energia aurrezteko papera alferrik ez dugu gastatzen, eguzkiaren argia nahikoa bada, argia ez dugu pizten eta iturria ixten dugu.

Gabonetan "argi potea" egin genuen kristalezko pote bat berrerrabiliz eta erleen argizariarekin kandela egin genuen.





ENERGIA,
BIZITZAREN
MOTORRA

LH 1-2

TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Gure mugitzeko ohiturak
nolakoak diren aztertu
ditugu eta horrela gure
"aztarna"-k nolakoak diren
ikusi dugu.



Gehienak **horia**
eta **berdea** dira.
Baten bat **gorria**
aterada.





Gure etxeetako energiaren beharrak jakin ondoren ditugun ohiturak aztertu ditugu, beti ere hobetzeko prest!

- Orokorrean ohitura onak ditugu baina gehiago egin dezakegula konturatu gara.



Bonbilla motak ere aztertu ditugu!
goritasun-bonbilak, fluoreszenteak,
halogenoak, kontsumo baxukoak eta
led argiak.

ESKOLA AGENDA 2030
TOLOSALDEA
2022-2023 ikasturtea

EH KUTSAGARRIA

ENERGIA, BIZITZAREN MOTORRA

LH 3+4

2. NIRE ETXEA IRUDIKATUKO DUT

Gure etxea martxan jartzeko energia behar duten tresnak ezagutu ditugu. Orain, ariketa etxean osatuko dugu. Elektratresnak, argiak eta berogailuak izango ditugu kontuan. Argiaren kasuan, galdetu etxean zein motatako bonbilla erabiltzen dituzuen.

Bonbilla arruntak Kontsumo baxu halogenoak Led Fluoreszenteak

Zenbat daukazue bakoitzeko?

SUKALDEA

1. LOGELA

1. BAINUGELA

2. BAINUGELA

2. LOGELA

EGONGELA

3. LOGELA

Beste batzuk: _____



Herritarrei galdetu diegu energiarekiko dituzten ohituren inguruan:

- denbora gehiegi pasatzen dugu dutxan
- behar duguna baina gehiago erosten dugu
- telebista, ordenagailua ...piztuta uzten dira
- bateriak entxufatuta uzten dira
- janari asko botatzen da
- egunez argiak piztuta edukitzen ditugu
- ...



→ Orokorrean,
herritarrek energia gutxiago
kontsumitzen saiatzen dira
baina garestitu delako



ENERGIA,
BIZITZAREN
MOTORRA

HH-LH

TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Hauek dira guk hartu ditugun konpromiso batzuk:

- Ur txorrota itxiko dugu behar ez degunean
- Ahal den gehien bizikleta eta garraio publikoa erabiliko dugu
 - Berogailua piztu aurretik arropa gehiago jantziko dugu
- Eguzkiaz gozatuko dugu, pertsianak irekiz, argi naturala aprobetxatuz.
- Elektrizitaterik gabeko baliabideak erabiltzen saiatuko gara, ahalik eta pantaila gutxien erabiliz





ENERGIA,
BIZITZAREN
MOTORRA


HH-LH

TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Eta udalari proposatu nahi diogu:

Bizikleta
erabilera bultzatu.
Txirrinda guneak eta
parkinak jarri. Bizikletak
alokairuan jarri. Bidegorria
ondo jarri eta luzatu.




Ingurumenaz
gehiago
arduratu.



Eraikin
publiko guztietan
eguzki-plakak jartzea,
erabilera bultzada bat
eman Tolosaldean.
Diru laguntzak
eskainiz
adibidez.



Herriko argiteriaren egoera aztertu dugu.



- Orokorrean ona da. Azken urtean berritzen joan da, orain mantenu bat egon beharko luke.
- Erdialdeko guneetan argiteri nahiko dago, baina kanpoko auzo batzuk ilunago egoten dira.
- Alde zaharrean eta Amarozen argiteri falta da eta zahar kitua dago. Baita Usabalera bidean eta Eroski pasata.



Mundura begira jarri
gara eta desoreka
energetikoa ere dagoela
argi dago.



Zein da egungo eredu energetikoa?
Aldatu beharra dago? Zergatik, nola...

- Energia asko kontsumitzen dugu, baita alferrik xahutu ere.
- Oso eskura dugu energia eta ez gara ohartzen energia iturriak agortzen ari direla.
- Gainera energia lortzen asko kutsatzen dugu.



Elektrizitatea oso garestia da eta askok ezin dituzte fakturak ordaindu eta kalefakzioa jarri gabe pasa dute negua. Hori oso triste da!





ENERGIA,
BIZITZAREN
MOTORRA

BATXILERGOA

TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Toლოსaldean kultur energetiko berri baten bidean emandako pausoak aztertu ditugu.

Konturatu gara:

- Energiakontsumo handia izaten dugula
- Herritarrok hainbat arlotan erabaki ahalmen txikia dugula
- Ohitura batzuk aldatu behar dugula



Guk herritarrok...

- Kotxeen erabilera murriztu dezakegu
- Tresna elektriko eta elektronikoetan ohitura batzuk aldatu ditzakegu
- Gure instituzioetara jo eta proposamenak egin ditzakegu.



ENERGIA,
BIZITZAREN
MOTORRA


DBH-BATXILERGOA

TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Hauek dira gure konpromiso batzuk:

- ✓ Argirik behar ez denean itzali
- ✓ Argi naturala ahalik eta gehien erabili
- ✓ Mugikor eta ordenagailu kargadoreak, gauetan eta behar ez direnean deskonektatu
- ✓ Oinez edo bizikletaz joan ikastetxera





ENERGIA,
BIZITZAREN
MOTORRA

DBH-BATXILERGOA

TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Eta hauek dira gure proposamenak



- Tolosako argiteriaren egoeraren ikerketa sakona egin. Faroletan sentsoareak jarri, gutxi kontsumitzen duen argiteria erabili. Farolak eguzki plakekin. Argiteria berritu, argia goitik beherako argiztapenekin sistemak jarri. Pizteko ordutegia berrikusi.



- Herriko etxe promozio guztietan etxe pasiboak edo antzekoak izateko baldintzat jarri.



- Udaleraiakinetan energia murrizteko neurriak hartu (LED argiak, kalefakzioa egokitu...)



ENERGIA,
BIZITZAREN
MOTORRA

TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Datorren ikasturtean...



ESKU HARTZE
fasean murgilduko gara
eta ekimenak
diseinatu eta martxan jarriko
ditugu.

Baina honen inguruan informazio gehiago
jakiteko datorren ikasturtera itxaron beharko
duzue!



ENERGIA,
BIZITZAREN
MOTORRA

TOLOSA
2022-2023 IKASTURTEA



Tolosako hezkuntza komunitateak erronkari
eutsiko diogu eta udal agintarien
laguntzarekin, ahaleginak egingo ditugu
denon artean iraunkortasun eta
lankidetzaren kultura zabaltzeko.

Eskerrik asko zuen arretagatik!



Laskorain
ikastola

